

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EDIZIOKO ETA POSTPRODUKZIOKO LANERAKO PLANAREN DISEINUA	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0812		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postprodukzioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Edizioaren eta postprodukzioaren plangintza	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ediziorako eta postprodukziorako beharrezkoak diren baliabideak	Iraupena	80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0947_3 IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKTU BATEN EDIZIO- ETA POSTPRODUKZIO-PROZESUAREN PLANGINTZA EGITEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ezaugarriak zehaztuta dituen proiektu baten edizio- edo postprodukzio-prozesuen plangintza egitea, dagozkion dokumentu teknikoak sortuz.

E1.1 Edizio-gelen egokitasun-irizpideak adieraztea, prestazioen eta konfigurazioaren arabera.

E1.2 Ikus-entzunezko lanak errealizatzeko erabiltzen diren dokumentuak interpretatzea: gidoiak, eskaletak, minutajeak.

E1.3 Edizio-motaren arabera beharrezkoak diren postprodukzio-faseak eta -prozesuak deskribatzea.

E1.4 Edizio- eta/edo postprodukzio- jarduera propioen antolaketa-plan estandarizatua eta beharrezkoak diren baliabideak islatzea, proiektuan denborari dagokionez zehaztutako epeen barruan.

E1.5 Ikus-entzunezko programa baten gidoitik edo eskaletatik abiatuz:

- Gidoiaren asmo narratibo eta espresiboa definitzea.
- Ediziorako/postprodukziorako bitarteko teknikoak identifikatzea.
- Dokumentu-iturriak identifikatzea.
- Edizioaren/postprodukzioaren plangintza egitea, edizio- eta postprodukzio-plana eginez.
- Hartutako erabakiak justifikatzeko txosten bat egitea.

CE1.6 Edizio- edo postprodukzio-prozesuaren dokumentu teknikoak egitea, lanerako planetik abiatuta.

Edukiak

1. Edizio-ekipoak eta -gelak

- Zinemako edizio-gelak, motak. Ekipamendua. Funtzioak. Hautatze-irizpideak.
- Bideoen edizio- eta postprodukzio-gelak, motak. Ekipamendua. Funtzioak. Hautatze-irizpideak.
- Zinemarako, bideorako edo telebistarako audioaren edizio- eta postprodukzio-gelen motak eta konfigurazioa. Ekipamendua. Funtzioak. Hautatze-irizpideak.

2. Edizioaren plangintza

- Gidoiaren azterketa teknikoa.
- Edizio-gidoiak. Motak. Dokumentu lagungarriak
- Edizio-prozesuak. Faseak. Edizio-motak. Dokumentazio teknikoa. Giza taldea.
- Edizioaren plangintza egiteko teknikak.
- Edizio- eta postprodukzio-planaren prestaketa.
- Denbora-diagramak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0811 Ediziorako eta postproduktzioarako beharrezkoak diren baliabideak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postproduktzioa